## OMENALDIA

# PILIPIÑETAN!

1;D!0r11 JJ^1!sŕ Jŕ

REV. FATHERS ARTHUR RAEIi A\U

FRANCISCO Rita ERRIA

1N T'n 5dVC1 ,TY Di .1ESt,5

';,iurJLy-

(lky c

*Pilŕpŕñetatŕk gure irakurle ta adiskide aundi dogun Etxebarria'tar Pa-.'xi aita josulagunaren barriak artu doguz.*

Beste euskaldun askoren antzera, erbestean, Pilipiñetan, daukagu gure idazle ospetsu au: Urriñean ela ba kartadean.

Eta urteak aurrera doakuzala-ta (nori ez?), saridun izateko sasoia eldu jako gure adiskideari eta, olakoetan oitura dan lez, omenaldi ondo irabazia egin dautsoe bertako josula gunak, adiskideak, lankideak eta ikasleak.

Joan dan urrillaren 25 ean eta Ilo ilo urian izan da, berarentzat ain pozgarri gertatu dan- egun aundi ori. Beragaz batera Arthur Baur aitari be bai.

Etxebarria aitak pozik artzen dau gure ZER urriñeko lurralde aretan eta gogotsu irakurri be. Emen egiten dogun lan onegaitik eskerrik beroe nak eta zoriona opa dauskuz. Ez dira txarto etorten, andik eta ortik kezkak eta azierpenak sortzen diran aldietan.

Gure abizenak zuzen esatea gatx egiten jakela angoai diñosku adiskide onek eta ez da arritzekoa Españata rren ikus-irratian entzuten diranak entzun ezkero.

Esaterako, Berrio-Otxoa entzun eta «Perrochoa» idatzi la olakoak. Ori orrelan an izanik, Zeanuri n «Olivares» zelan sartu zan gogora Izen dausi mixiolari josulagun onek. Eta ez dago oker, Zeanur ko «Oliva res» [arrak euskaldun zar eta beti koak dira-la; ba-dago an, gaiñera, «O11ibiz» izeneko baserri bat, jatorriz «O11ibarriz» edo olako zerbait izango zan. Gogoratu «oilla-lur», «Oillibar», «oillarre» ta olakoak.

*Eta bere aolkua, onua, be emoten dausku Etxebarria aitak: Lanean jarraitze-ko, «Ekin eta jarrai». Onartzekoa au be.*





Azkenean, siniste-bakoak be ba-di rala an inguruan eta sinismenera eto rri daitezan gure otoitzak eskatzen dauskuz. Orra or, rixiolari zarraren gogo gaztea! Ezin ukatu olako bŕo lzaz eskatua!

Ela amaitzeko, zer esango dautso gu urrineko adiskideok Pilipiñetako mixiolari gogolsuarŕ?

Eleizearen Barri-zabaltzean egin dauan lan ederragailik, zoriona! le nengo.

Eia, bigarren, eskaritxu bat: Ira kurten doguz zure lanak euskerazko aldizkarietan, baiña ba-dakigu Idazti Deuna zabaltzean euskal-lan garran tzitsua egin dozuna. Azaldu egiguzu ZERen zure lan ori, irakurle guz tionizal jakingarri dala uste dogu-ta. Aldi-aurrez eskerrik asko eta zorio na!

OLAZAR'tar Martin'ek